

Amalur ARTOLA | DONOSTIA

Banpiro literaturaren aitzindaritzat hartzen da "Carmilla", Sheridan Le Fanu idazle eta kazetari irlandarrak idatzia. Igela eta Erein kudeatzen ari diren Literatura Unibertsala bildumari esker, orain euskaraz ere irakur daiteke, Maialen Berasategik itzuli baitu.

Liburua atzo aurkeztu zuten Donostian. Inazio Mujika editorea izan zen hitza hartzen lehena, autorea bera aurkezteko. Besteak beste, gogora ekarri zuen Le Fanu Dublín jaio zela 1814an eta 1873an zendu zela, aita irlandar elizako apaiza zuela, Trinity College entzutetsuan Zuzenbidea ikasi zuela eta gazterik hasi zela zenbait literatura aldizkarietan kazetari lanean. Kontakizun gotikoak argitaratzen hasi zen orduan, izua eragitekoak gehienak. Hil baino urtebete lehenago argitaratu zuen "Ispilu ilun batean" ("In a Glass Darkly"), bost kontakizuneko bilduma, eta horietako bat da "Carmilla", idazlearen kontakizunik ezagunena.

"Carmilla" hartzen da banpiroak protagonista dituen literaturaren aitzindaritzat, nabarmendu zuen Mujikak. Izan ere, Bram Stokerren "Drakula" baino 25 urte lehenago idatzia da. Eta kontakizunaren nondik norakoak ere aipatu zituen: aitarekin batera Austriako Estiria eskualdeko gaztelu bakarti batean bizi den Laura da protagonista. Egun batean zalgori batek istripua izango du gaztelu atarian, eta bertan doan Carmilla gaztea, zauriturik dagoenez, gazteluan geratuko da. «Harreman bat sortuko da Lauraren eta Carmillaren artean, erakarmen sensual handi bat», aurreratu zuen.

Paisaia pintoreskoak Sarrera eginda, Berasategi mintzatu zen, liburuaren gaineko xehetasun gehiago emateko. Liburua nobela labur edota kontakizun luze bezala har daitekeela esan zuen, eta Austriako bihotz berdean girotuta dagoela zehaztu, herrixka pintoresko batean. Azaldu zuenez, aitaren lanbideagatik eskualdeko hainbat herrixka ezagutu zituen Le Fanuk, paisaia pintoreskoetan hezia izan zen. «Hango paisaia, gaur gotikotzat jotzen ditugun horietan inspiratu omen zen bere istorioak idazteko. Haren unibertsotik inguruko bizitzatik hartua da», esan zuen. Alde horretatik, kontakizunaren eszenatoki den gazteluaz ere jardun zuen. «Gaztelua da denok buruan dugun gaztelu hori, dorre eta dorretxoekin, zubi altxagarriarekin, bide sigi-

Maialen Berasategik euskarara ekarri du Sheridan Le Fanuren "Carmilla" eleberri klasikoa, Erein eta Igela argitaletxeek sustatutako Literatura Unibertsala bilduman.

Sheridan Le Fanuren «Carmilla» banpiro literaturako klasikoa, euskaraz



Maialen Berasategi itzultzailea, «Carmilla» eskuartean duela. Andoni CANELLADA | FOKU

IZURRIA

«Erraz lerra gaitzek begiratzera banpiro honen perbertsioa askapen gisa planteatuta dagoela. Halaxe iradokitzen dute istorio honetaz egin diren hainbat egokitzapenek, eta ez da zilegi interpretazio hori, baina guztiz kontrakoa ere interpreta daiteke: autorearentzat anomalia bat dela. Deuseztatu beharreko izurri bat», adierazi zuen itzultzaileak.

sagatsua inguruko baso sarrian ezkutatzen dena...», deskribatu zuen, eta bertan aitalabek bizimodu patxadatsua daramatela aipatu zuen, «patxadatsuegia, agian, Lauraren gaitetasun irrikatsurako». Izurri misteriotsu baten eraginez emakumezko asko hiltzen ari diren zurrumurrua iritsiko zaie eta, hain justu, une horretan sartuko da beren bizitzetara Carmilla. «Istantean Laurari eta neska iritsi berriari elkarren oroitzapen lauso bat piztuko zaie, eta elkarrenganako lilura bizi bat ere bai, nahiko siniestroa», aurreratu zuen Berasategik. Kontakizuna Bram Stokerren "Drakula"-rekin ere alderatu zuen itzultzaileak. «Alderik nabarmenena banpiroaren izaera bera da. Le Fanuren banpiroa da giza eite nahiko normaleko kreaturea, itxuraz nahiko xaloea, ahula, gaixoberra, ezin ederragoa eta emakumezkoa, noski. Pertsonaia ambigua da, toles handikoa eta kontraesanez betea», deskribatu zuen.

Kontrara, Stokerrena «tradicio zaharragoko edo tipikogoko banpiro munstro gizonetzkoa» dela esan zuen, «eta

nik ez dizkiot horrenbeste toles ikusten».

Banpiroa emakumezkoa izateaz gogoeta ere egin zuen Berasategik, Le Fanuren hautua ez zela ausazkoa izango ondorioztatuz.

«Bi protagonistak emakume desiratu eta desiragarriak dira, eta biak dira desiratzailak. Nahiko subjektu aktiboak dira, eta garai hartan desiraren irrika erakusten zuten emakumeak ez zeuden ondo ikusiak», adierazi zuen.

Gaurko optikatik begiratuta, desira homoerotiko hori «apurtzailatzat» har badaiteke ere, emakumezkoen «sasi-modioak» garaiko literaturan ohikoak zirela ohartarazi zuen, «benetako maitasuna» gizonezkoei erreserbatu baitzegoen.

«Erraz lerra gaitzek begiratzera banpiro honen perbertsioa askapen gisa planteatuta dagoela. Halaxe iradokitzen dute istorio honen inguruan egin diren hainbat egokitzapenek, eta ez da zilegi interpretazio hori, baina guztiz kontrakoa ere interpreta daiteke: autorearentzat anomalia bat dela. Deuseztatu beharreko izurri bat», ondorioztatu zuen.

El espíritu



Carlos GIL ZAMORA
Analista cultural

Existen demasiados exégetas que acaban creyéndose poseedores de unos sensores especiales y secretos que les convierten en los únicos seres que saben detectar en un simple visionado si las obras que parten de textos de Shakespeare, Chéjov, García Lorca, Calderón, Sófocles o cualquier otro de los autores-percha que ayudan a llamar la atención en el mercado teatral, mantienen realmente el espíritu con el que, suponen, fueron escritas.

La tradición manda, los estudios de estos autores se arraigan desde siglos a partir de su componente filológico, idiomático, sin introducir ningún elemento dramático de la puesta en escena en sus convicciones dogmáticas. De ahí parten los inmovilistas que son más lorquistas que Lorca y que han pervertido durante años con una noción categórica y muy reaccionaria su obra, que toman a Shakespeare como algo estanco, cuando es un modelo de redefinición y trasposición de mitos, ritos y personajes provenientes de otras culturas, para convertirlos en universales. Y así sucesivamente con casi todos los grandes.

Quien hable del espíritu es un charlatán, una envidiosa o un docente adocenado. Cada obra tiene niveles de interpretación y de ejecución diferentes, y si se usan situaciones, personajes o palabras de estos autores para hablar a los públicos de hoy, o es creación o es un timo por impericia o plagio instrumental sin reconocer que podría hasta ser delirio o vergonzoso.